



01

## EMAITZAK ETA AZTERKETAK

>>>

### EUSKARA NAFARROAKO KARRIKETAN 2006KO KALE NEURKETAREN EMAITZEN AZTERKETA

**Paula Kasares**

*Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartua*

Helbide elektronikoa: [paula.kasares@unavarra.es](mailto:paula.kasares@unavarra.es)

Hizkuntza baten erabilera soziala hizkuntza horren bizitasunaren adierazpide zuzenetakoa da. Horregatik, 1989 urteaz geroztik lauzpabortz urtetan behin Euskal Herrian egiten diren kale neurketak euskararen erabilaren nolabaiteko termometro erreferentziala bihurtu dira hizkuntza-aren alde sozialaz kezkatzen garenondako.

Nafarroa garaiko datuak aztertzea egokitu zait eta herrialde honetan kale neurketak emandako datuei lotuko natzaie nagusi-nagusiki, nahiz eta bidezkoa delarik bertze euskal herrialdeetara jo alderaketak Nafarroako datuak hobeki interpretatu eta balioztatzen ahalbidetuko digulakoan.

#### 1. 2006 URTEKO V. KALE NEURKETAZ

1989 urteaz geroztik bortz kale neurketa egin dira. Nafarroan bortzak egin dira (1989an, 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an). Neurketaren xehetasun metodologikoetan ez naiz luzatuko, baina bai aipatuko dut aurreko neurketan (2001ekoan) euskararen erabilera Nafarroako 41 udalerritako karriketan neurtu bazen ere, azken honetan (2006koan) 13 udalerritan baino ez dela egin. Handienetik txikienera: Iruñea, Tuter, Barañain, Burlata, Lizarra, Zizur Nagusia, Tafalla, Atarrabia, Berriozar, Baztan, Altsasu, Agoitz, eta Doneztebe.

2006ko kale neurketan neurtutako Nafarroako udalerriak biztanle kopuruaren arabera sailkatuta

| <i>Udalerri tipologia<br/>biztanleen arabera</i> | <i>Udalerria</i>     | <i>Biztanleak<sup>1</sup></i> |
|--------------------------------------------------|----------------------|-------------------------------|
| > 100.000                                        | <b>Iruñea</b>        | 195.769                       |
| 25.000 – 50.000                                  | <b>Tutera</b>        | 32.802                        |
| 10.000 – 25.000                                  | <b>Barañain</b>      | 22.401                        |
|                                                  | <b>Burlata</b>       | 18.388                        |
|                                                  | <b>Lizarra</b>       | 13.892                        |
|                                                  | <b>Zizur Nagusia</b> | 13.197                        |
|                                                  | <b>Tafalla</b>       | 11.040                        |
|                                                  | <b>Atarrabia</b>     | 10.295                        |
| 5.000 – 10.000                                   | <b>Berriozar</b>     | 8.555                         |
|                                                  | <b>Baztan</b>        | 7.827                         |
|                                                  | <b>Altsasu</b>       | 7.501                         |
| < 5.000                                          | <b>Agoitz</b>        | 2.175                         |
|                                                  | <b>Doneztebe</b>     | 1.494                         |

Udalerri horien tipologia zehazte aldera, 1. taulan agertu bezala: Nafarroak dituen 272 udalerrietatik 100.000 biztanletik gorako tipologian dagoen bakarra neurtu da (Iruñea). 50.000 – 100.000 biztanle bitarteko tipologiako herririk ez dago Nafarroan eta 25.000 - 50.000 biztanle bitartekoan dagoen bakarra ere neurtu da (Tutera). 10.000 - 25.000 biztanle tarteko tipologian Nafarroan dauden 6 udalerriak neurtu dira (Barañain, Burlata, Lizarra, Zizur Nagusia, Tafalla eta Atarrabia), bai eta 5.000 – 10.000 biztanle tarteko tipologian dauden 10 udalerrietatik 3 ere (Berriozar, Baztan eta Altsasu). Gutxien ordezkaturik dagoen tipologia 5.000 biztanletik beherakoa da, Nafarroak dituen 254 udalerri txikietatik 2 baino ez baitira neurtu (Agoitz eta Doneztebe).

Beraz, azken kale neurketa honetan neurtu diren udalerriak 41etik 13ra murriztu badira ere, Nafarroako populaziorik gehiena bizi den udalerriak neurtu egin dira.

1989 urteaz geroztik bortz kale neurketa egin dira. Nafarroan bortzak egin dira (1989an, 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an). Neurketaren xehetasun metodologikoetan ez naiz luzatuko, baina bai aipatuko dut aurreko neurketan (2001ekoan) euskararen erabilera Nafarroako 41 udalerritako karriketan neurtu bazen ere, azken honetan (2006koan) 13 udalerritan baino ez dela egin.

## 2. taula

2006ko kale neurketan neurtutako Nafarroako udalerriak, tipologia soziolinguistikoaren arabera sailkatuta, haien eskualdea, legezko hizkuntza eremua eta informazio demolinguistikoa

| Ezagutza %      | Udalerria         | Eskualdea    | Legezko hizkuntza eremua | 2001eko erroldako datuak (%) <sup>†</sup> |               |               |
|-----------------|-------------------|--------------|--------------------------|-------------------------------------------|---------------|---------------|
|                 |                   |              |                          | Euskaraz ongi                             | < 25 urtekoak | < 15 urtekoak |
| 0 – 25          | <b>Tutera</b>     | Tuteraldea   | Ez euskald.              | 1,2                                       | 1,9           | 2,5           |
|                 | <b>Tafalla</b>    | Na. Erd. Ek. | Ez euskald.              | 5,7                                       | 13,4          | 14,4          |
|                 | <b>Iruñea</b>     | Iruñerria    | Mistoa                   | 8,8                                       | 15,3          | 18,3          |
|                 | <b>Berriozar</b>  | Iruñerria    | Mistoa                   | 9,2                                       | 15,1          | 19,1          |
|                 | <b>Barañain</b>   | Iruñerria    | Mistoa                   | 9,9                                       | 18,9          | 21,7          |
|                 | <b>Burlata</b>    | Iruñerria    | Mistoa                   | 10,6                                      | 20,5          | 25,8          |
|                 | <b>Lizarra</b>    | Estellerria  | Mistoa                   | 10,8                                      | 26,4          | 30,3          |
|                 | <b>Zizur Nag.</b> | Iruñerria    | Mistoa                   | 11,6                                      | 21,1          | 23,3          |
|                 | <b>Atarrabia</b>  | Iruñerria    | Mistoa                   | 14,2                                      | 28,5          | 33,1          |
|                 | <b>Agoitz</b>     | Pirinioaldea | Mistoa                   | 15,2                                      | 40,8          | 53,3          |
|                 | <b>Altsasu</b>    | Ipar-Mende.  | Euskalduna               | 21,9                                      | 48,8          | 57,1          |
| 50 – 75         | <b>Doneztebe</b>  | Ipar-Mende.  | Euskalduna               | 70,5                                      | 91,6          | 94,6          |
| 75 – 100        | <b>Baztan</b>     | Ipar-Mende.  | Euskalduna               | 80,5                                      | 87,7          | 90,7          |
| <b>NAFARROA</b> |                   |              |                          | <b>12,1</b>                               | <b>18,8</b>   | <b>21,3</b>   |

2006ko neurketan neurtutako udalerriak Nafarroa 1986tik legez zati-tzen duten hizkuntza eremuen arabera multzokatuta: 3 eremu euskaldune-an daude (Baztan, Altsasu eta Doneztebe), 8 eremu mistoa delakoan (Iruñea, Barañain, Burlata, Lizarra, Zizur Nagusia, Atarrabia, Berriozar eta Agoitz) eta 2 eremu ez euskalduna delakoan (Tutera eta Tafalla).

Bertzalde, 2. taulan udalerri horiei dagokien zenbait datu demolin-guistiko ere atxiki zaie: 2001eko erroldaren arabera euskaraz ongi solas-ten direnak 2 urtetik goitiko populazio osoa hartuta (*Euskaraz ongi*), 25 urtetik beheitikoak hartuta (<25 urtekoak) eta 15 urtetik beheitikoak berei-zita (<15 urtekoak). Oroitu beharrekoa da 2001ekoak direla ditugun azken errolda datuak, zuzenbidean 2006 urtean egin beharrekoa zen hurrengo errolda ez baita egin.

2001eko erroldako datuen arabera Nafarroak 2 urtetik goitiko 555.829 biztanle zituen. 2006ko urtarilaren leheneko Biztanleen Udal Erroldaren arabera berriz, 601.874 biztanle gara. Beraz, 2001etik 2006 bitartean Nafarroak 46.045 biztanle irabazi ditu, % 8,3.

## 2. NAFARROAKO DATUEN AURKEZPENA

2006ko kale neurketak Nafarroan emandako emaitzek euskararen erabilaren aurrerabiderik eza berretsi dute. Herrialde osoari dagokionez, 2006ko neurketak 2001ekoak emaitza bera eman du: 6,6.

### 2.1. Adin taldeak

Adin taldeka bereizita, azken kale neurketak 8,5 eman du haurren artean (-0,1 puntuko galera 2001ekoaren aldean), 6,9 gazteen artean (aurrekotik +0,8 puntuko igoera ekarri duela), 5,5 helduen artean (-0,4 beheiti egin da) eta 5,8 adinekoen artean (+0,5 irabazita).

#### 3. taula

Kale neurketek Nafarroan emandako emaitzak adin taldeka

| Neurketa    | Erabilera  | Gaitasuna (urtea) <sup>1</sup> | Haurren erabilera % | Gazteen erabilera % | Helduen erabilera % | Adinekoen erabilera % |
|-------------|------------|--------------------------------|---------------------|---------------------|---------------------|-----------------------|
| 1989        | 6,5        | 10,2 (1986)                    | 9,8                 | 5,3                 | 5,3                 | 5,8                   |
| 1993        | 6,7        | 10,2 (1991)                    | 9,9                 | 5,9                 | 5,5                 | 5,5                   |
| 1997        | 6,8        | 10,9 (1996)                    | 9,2                 | 5,7                 | 6,0                 | 6,4                   |
| 2001        | 6,6        | 12,1 (2001)                    | 8,6                 | 6,1                 | 5,9                 | 5,3                   |
| <b>2006</b> | <b>6,6</b> | <b>?</b>                       | <b>8,5</b>          | <b>6,9</b>          | <b>5,5</b>          | <b>5,8</b>            |

Datu orokorren bat-bateko balorazioak baikorra behar du izan, nire idurikotz. Lehenik, arestian erran bezala, 2001etik 2006 bitartean Nafarroako populazioa kanpotik etorritako jendeaz % 8,3 berretuta, horrek ez baitu iduri euskararen erabilera soziala beheiti ekarrarazi duenik. Bigarrenik, urte tarte horretan Nafarroako Gobernuak jorratu duen hizkuntza politika instituzionalak jarraitu baitu euskararen erabilera soziala ez sustatzen, hizkuntzaren erabilera publikoa baztertzen eta helduek euskara ikas dezaten eta haurrak euskarazko eredueta matrikula ditzaten ez bultzatzen. Hirugarrenik, bertze adin taldeetan gertatu diren galerak galera, Nafarroako igoerarik handiena gazteen artean gertatu baita (+0,8).

Beraz, aipatu testuinguru horretan aurrerabiderik ezak aurreko erabilera mailari eutsi egin zaiola errateko bide ere ematen du, hau da, espero zitekeenaren kontra, ingurumari soziopolitikoan ez alde jokatu duten aldagaiek jokatu dutela, euskararen erabilera egonkor mantendu baita.

Baina azken bortz urteotan erabilera datuak bere horretan egoteak Euskal Herriko bertze herrialdeen joera nagusitik aldentzen du Nafarroa. Euskal Herri osoko erabilerak +0,7 puntu egin baitu goiti ([2001] 13,5 \_ [2006] 14,2), adinekoek ez bertze adin talde guztiek euren erabilera goratu dutela.

Arabak, adibidez, demolinguistikoki Nafarroako errealitatetik gertuen dagoen herrialdea aipatzeagatik, +1,4 puntu igo du erabilera ([2001]

*Datu orokorren bat-bateko balorazioak baikorra behar du izan, nire idurikotz. Lehenik, arestian erran bezala, 2001etik 2006 bitartean Nafarroako populazioa kanpotik etorritako jendeaz % 8,3 berretuta, horrek ez baitu iduri euskararen erabilera soziala beheiti ekarrarazi duenik. Bigarrenik, urte tarte horretan Nafarroako Gobernuak jorratu duen hizkuntza politika instituzionalak jarraitu baitu euskararen erabilera soziala ez sustatzen, hizkuntzaren erabilera publikoa baztertzen eta helduek euskara ikas dezaten eta haurrak euskarazko ereduatan matrikula ditzaten ez bultzatzen. Hirugarrenik, bertze adin taldeetan gertatu diren galerak galera, Nafarroako igoerarik handiena gazteen artean gertatu baita (+0,8).*

3,3 \_ [2006] 4,7) eta herrialde horretan ere adinekoek ez bertze adin talde guztiek euren erabilera goratu dute.

## **2.2. Udalerrri tipologia**

Kale neurketak leku publiko zehatz batean (karrikan, plazan beti ere) egingen den hizkuntza erabilera neurtzen du, baina hain neurketaldi laburrean (6 orduko beha-entzuketa udalerrri bakoitzeko) zorizko faktoreek eragiten dute. Udalerrri batean neurtzen den lagina zenbat eta urriagoa izan orduan eta eragin handiagoa izan dezake zorizko faktore horrek. Euskaldun ehuneko eskasa duten udalerrietan 6 ordu horietan gazte euskaldunen bat solasean harrapatzea ala ez zori hutsa izaten da, eta anitz aldiz horrek makurrarazten edo goratzen du adin talde horri dagokion emaitza. Hala gertatu da Berriozarren eta Zizur Nagusian non hutsa izan baita gazteei entzundako euskararen erabilera.

Beraz, kasuz kasu aztertu beharrean (posiblea izanzen litzateke 13 udalerrri ez baitira), udalerrri horiek ahal den multzorik naturalenetan multzokatu beharra ikusi dut. Hala eginda, zoriak dakarrena zoriak darmanak berdinuko baitu eta, bertzalde, datuak oro har emanda, neurketek puntualtasunaz gain erakusten duten joera atzemanen baitugu.

Arestian ikusi bezala, Nafarroan kale neurketa, biztanleen arabera nola euskararen ezagutzaren arabera, tipologia arrunt ezberdineko 13 udalerritan egin da. Ditugun datu horien interpretazio taxuzkoa egitearren, udalerrriak multzokatuko ditut, ahal dela Nafarroan diren elkarbizitza guneko sozio-geografiko naturalen arabera. Honako sailkapen hau egin dut:

- Iruñerria: **Iruñea, Barañain, Burlata, Zizur Nagusia, Atarrabia eta Berriozar.**
- Ipar-Mendebalde: **Baztan** (Elizondo), **Doneztebe** eta **Altsasu.**
- Pirinioalde: **Agoitz**
- Estellerria: **Lizarra**
- Nafarroa Erdialdeko Ekialdea: **Tafalla**
- Tuteralea: **Tutera**

### **2.2.1. Iruñerria**

Iruñerrian Nafarroako populazioaren erdia baino gehixeago bizi da. Eskualde honetako udalerrriak tipologia soziolinguistiko beretsukoak dira: Iruñeko % 8,8ko ezagutzatik Atarrabiako % 14,2ko ezagutzara bitartekoak (ikusi 2. taula).

Lehenik, hiriburuari erreparatuko diogu: Iruñean (100.000 biztanle-tik goitiko udalerrri bakarrean) erabilera 2,8koa da, aurreko neurketatik +0,3 goiti egin duela ([2001] 2,5 \_ [2006] 2,8).

#### 4. taula

Kale neurketek Iruñean emandako emaitzak adin taldeka

| Udalerrria    | Neurketa    | Erabilera % | Haurren erabilera % | Gazteen erabilera % | Helduen erabilera % | Adinekoen erabilera % |
|---------------|-------------|-------------|---------------------|---------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>Iruñea</b> | <b>1993</b> | 1,8         | 2,6                 | 1,6                 | 1,9                 | 0,6                   |
|               | 1997        | 2,9         | 4,1                 | 2,5                 | 2,7                 | 2,4                   |
|               | 2001        | 2,5         | 4,4                 | 2,5                 | 2,3                 | 0,2                   |
|               | <b>2006</b> | <b>2,8</b>  | <b>4,3</b>          | <b>1,8</b>          | <b>2,6</b>          | <b>1,9</b>            |

Igoera helduei eta adinekoei esker gertatu da. Haurren eta gazteen erabilerak berriz, ez du garapen positiborik izan. Haurrek ia erabilera bera izan dute (-0,1) baina gazteek aldiz, nabarmen egin dute gainbehera (-0,7).

Iruñean adin talde berekoen artean euskaraz zenbat erabiltzen den erreparatzen badugu, ikusiko dugu haurrek (% 0,8) eta gazteek (% 1,3) helduek (% 1,5) baino gutxiago erabiltzen dutela euren artean. Horretan Iruñea garbi bereizten da Hegoaldeko bertze hiriburuen joeratik.

Paradoxikoki, erabileraren datuek behehitiko jokaera izan dute eza-gutza aldetik egoerarik onena duten adin taldeetan. Euskararen ezagutzaren gainean dugun daturik berriene<sup>4</sup> diote, hain zuzen ere, Iruñerriko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean % 32,1ek egiten duela ongi euskaraz.

Hegoaldeko bertze hiriburuen aldean, Iruñea da 1989ko kale neurketatik 2006ko kale neurketa bitartean garapenik txikiena izan duena. Hamazazpi urteotan Donostiak izan du garapenik onena: +7,9.

#### 5. taula

Kale neurketek Hegoaldeko hiriburuetan emandako emaitzen garapena

| Hiriburua | 89_06 erabilera | 1989ko neurketa % | 1993ko neurketa % | 1997ko neurketa % | 2001eko neurketa % | 2006ko neurketa % |
|-----------|-----------------|-------------------|-------------------|-------------------|--------------------|-------------------|
| Donostia  | +7,9            | 10,3              | 9,5               | 14,0              | 15,8               | 18,2              |
| Gasteiz   | +2,0            | 2,0               | 2,5               | 2,9               | 2,8                | 4,0               |
| Bilbo     | +1,8            | 2,5               | 4,3               | 4,5               | 4,6                | 4,3               |
| Iruñea    | +1,5            | 1,3               | 1,8               | 2,9               | 2,5                | 2,8               |

Alderaketarako Gasteiz hartuta, soziolinguistikoki Iruñetik gertuena baita, ikus daiteke Iruñea baino garapen hobia izan duela. Gainera, azken kale neurketan Gasteizen, Iruñean ez bezala, adinekoek ez bertzetik adin taldeek garapen positiboa izan dute eta bereziki nabarmena izan da haur eta gazteen erabilerekin izan duten goratzea: haurrek +2,3 ([2001] 3,5 \_ [2006] 5,8) eta gazteek +2,9 ([2001] 3,4 \_ [2006] 6,3). Bi hiriburuaren artean alderik deigarriena gazteen erabileran dago, Iruñean positiboki berretu beharrean beheiti egin baitu nabarmen: -0,7 ([2001] 2,5 \_ [2006] 1,8).

Dakusagun orain Iruñerria, hiriburuaz gain bertze udalerriak ere hartuta. Iruñerrian neurtutakoen artean Berriozar ez bertzetik guztiak 10.000 - 25.000 biztanle tarteko tipologiako udalerriak dira: Barañain, Burlata, Zizur Nagusia eta Atarrabia.

#### 6. taula

2006ko kale neurketan neurtu diren Iruñerriko udalerrietako emaitzak adin taldeka, 2001eko ezagutza datuaren aldean

| Udalerria        | Euskaraz<br>ongi % | Erabilera<br>% | Haurren<br>erabilera % | Gazteen erabilera<br>% | Helduen erabilera<br>% | Adinekoen<br>erabilera % |
|------------------|--------------------|----------------|------------------------|------------------------|------------------------|--------------------------|
| <b>Iruñea</b>    | 8,8                | <b>2,8</b>     | 4,3                    | 1,8                    | 2,6                    | 1,9                      |
| <b>Barañain</b>  | 9,9                | <b>4,2</b>     | 2,8                    | 4,0                    | 5,4                    | 2,9                      |
| <b>Burlata</b>   | 10,6               | <b>3,5</b>     | 5,9                    | 1,5                    | 2,8                    | 1,4                      |
| <b>Zizur Na.</b> | 11,6               | <b>2,2</b>     | 3,2                    | 0                      | 2,3                    | 0                        |
| <b>Atarrabia</b> | 14,2               | <b>2,9</b>     | 3,7                    | 2,4                    | 2,6                    | 0                        |
| <b>Berriozar</b> | 9,2                | <b>4,0</b>     | 5,0                    | 0                      | 3,6                    | 5,6                      |

Herriz herriko agerpen horrek begi bistara atentzioa ematen duten datu batzuk ditu, Zizur Nagusian eta Berriozarren gazteek izan duten erabilera hutsala, kasu. Zizur Nagusiaren kasuan % 3,9ko erabilera batek jaitzi da ([2001] 3,9 \_ [2006] 0) eta pentsatzekoa da, arestian aipatu bezala, euskaldunak % 10 inguru diren udalerrietan neurketaldian zorizko edozein faktorek aldarazten ahal duela emaitza, areago ere lagina handia ez denean, aipatu bi kasuetan gertatu den bezala (Berriozarren 64 gazte baino ez ziren neurtu eta Zizur Nagusian 84).

Beraz, kasuz kasuko agerpena gainditzearren eta joerak ezagutze aldera, ikus dezagun 10.000 – 25.000 biztanle tarteko udalerriek (Barañain, Burlata, Lizarra, Zizur Nagusia, Tafalla eta Atarrabiak) izan duten garapena. Taula honetan Berriozar ez dago eta aldiz, Iruñerrikoak ez diren Lizarra eta Tafalla bai.

7. taula

Kale neurketek 10.000 – 25.000 bitarteko biztanleak dituzten Nafarroako udalerrietan emandako emaitzak adin taldeka

| Udalerriak     | Neurketa    | Erabilera % | Haurren erabilera % | Gazteen erabilera % | Helduen erabilera % | Adinekoen erabilera % |
|----------------|-------------|-------------|---------------------|---------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>10.000-</b> | 1993        | 5,9         | 10,5                | 6,4                 | 2,9                 | 0,0                   |
| <b>25.000</b>  | 1997        | 2,5         | 4,1                 | 2,3                 | 1,4                 | 0,9                   |
|                | 2001        | 3,0         | 3,6                 | 5,1                 | 2,5                 | 0,2                   |
|                | <b>2006</b> | <b>3,7</b>  | <b>4,4</b>          | <b>2,9</b>          | <b>3,8</b>          | <b>2,6</b>            |

Azken neurketaren aldean 2006ko neurketak igoera ekarri du: +0,7 ([2001] 3,0 \_ [2006] 3,7), baina bertze neurketen aldean, 1993ko neurketak izan zuen emaitza urruti geratzen da, batez ere haur eta gazteen erabilerearen kasuan.

Aipatzekoa da helduen eta adinekoen euskararen erabilera inoizko garaia izan dela. Helduek +1,3 ([2001] 2,5 \_ [2006] 3,8) eta adinekoek +2,4 ([2001] 0,2 \_ [2006] 2,6) egin dute goiti.

Atentzioa ematen du gazteen erabilerak aurreko neurketatik izan duen beherakadak: -2,2 ([2001] 5,1 \_ [2006] 2,9), kontuan hartuta 2. taulan agertu bezala, belaunaldi berrien artean euskararen ezagutza nola emendatu den: Tafallak ez bertze denek 15 urte beheitikoen artean euskararen ezagutza 21,7tik 33,1 bitartekoa zuten 2001ean. Gazteen erabileraren apaltze honetan bat egiten dute, oro har, Iruñeko datuek eta 10.000 – 25.000 biztanle tarteko udalerrietakoek.

Deigarria ere egin zaigu haurren arteko erabilerak zer emaitza ezberdina eman duen Iruñerriko udalerrietan: batzuetan hutsetik hurren (adibidez, Zizur Nagusian eta Berriozarren % 0 eta Iruñean % 0,8) eta bertze batzuetan, aldiz, erabilera orokorraren gainetik (Burlatak % 5,9; Atarraikiak % 3,3).

Nafarroako hiri handi horietan azken bortz urteotan izan diren aldaketak demografikoak hartu beharko ditugu kontuan. Izan ere, honezkero Iruñean bizi direnen % 8,6 Europako Batasunetik kanpoko atzerritarrak dira, Barañainen % 9,9 eta Burlatan % 8,6 <sup>5</sup>.

### 2.2.2. Ipar-Mendebaldea

Hemen Baztan<sup>6</sup> (Elizondo), Doneztebe eta Altsasu ditugu. Biztanle nola hizkuntza araberako udalerririk ezberdinak dira. Hiru udalerriek euren inguruko herriburuak dira eta beraz, erreferentzialak, hurrenez hurren, Baztango, Malerreko eta Burundako erabileren joerak ezagutzeko.

Doneztebek eta Baztanek euskararen ezagutza handiko udalerririk dira eta Nafarroan neurtu diren emaitzarik altuenak eman dituzte. Bietan

erabilerarik onena eman duten adin taldeak gazteena eta haurrena dira. Izan ere, Donezteben nola Baztanen belaualdi berrietan 10etik 9k ongi egiten du euskaraz. Helduen erabilera aldiz, bi kasuetan apalena da. Baztanen atentzioa ematen du neurketaz neurketa, bertze adin taldeen gorabeheren aldean, helduen erabilerak izan duen garapen txikia: (25,4 [1993] \_ 24,7 [1997] \_ 31 [2001] \_ 30,1 [2006]). Mendialdeko herri euskaldunetan helduen adin taldea izaten da ezagutza mailarik apalena duena eta erdararen aldeko erabilera ohitura eta joerarik nabarmenak dituen.

#### 8. taula

2006ko kale neurketak Donezteben, Baztanen eta Altsasun emandako emaitzak adin taldeka, 2001eko ezagutza datuaren aldean

| Udalerria                | Euskaraz ongi % | Erabilera % | Haurren erabilera % | Gazteen erabilera % | Helduen erabilera % | Adinekoen erabilera % |
|--------------------------|-----------------|-------------|---------------------|---------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>Doneztebe</b>         | 70,5            | <b>48,8</b> | 58,4                | 68,8                | 36,9                | 57,0                  |
| <b>Baztan (Elizondo)</b> | 80,5            | <b>39,7</b> | 53,4                | 54,2                | 30,4                | <b>39,7</b>           |
| <b>Altsasu</b>           | 21,9            | <b>15,5</b> | 22,6                | 9,0                 | 13,7                | 11,7                  |

Altsasu ezagutza apalagoko udalerria da eta aurreko udalerrien bertzelako erabilera eskema erakutsi du. Dena dela, honetan ere haurren erabilera ona nabarmentzekoa da.

Erreparatzen badiogu 5.000 – 10.000 biztanle bitarteko herrien garapenari, Berriozar, Baztan eta Altsasu hartuko ditugu. Berriozar Iruñerriko udalerria da eta han txertatu dugu haren azterketa. Baina ikus dezagun tamainaren arabera azterketa honek zer ematen duen: oro har hartuta, tipologia honetako udalerriek ere haurren inoizko erabilerarik garaiena eman dute azken neurketan : 8,6 [1993] \_ 10,1 [1997] \_ 9,2 [2001] \_ 10,3 [2006]. Helduek ere inoizko erabilerareik garaiena eman dute: % 7.

#### 9. taula

Kale neurketek 5.000 – 10.000 bitarteko biztanleak dituzten Nafarroako udalerrietan emandako emaitzak adin taldeka

| Udalerriak          | Neurketa    | Erabilera % | Haurren erabilera % | Gazteen erabilera % | Helduen erabilera % | Adinekoen erabilera % |
|---------------------|-------------|-------------|---------------------|---------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>5.000-10.000</b> | 1993        | 7,4         | 8,6                 | 5,5                 | 6,6                 | 10,2                  |
|                     | 1997        | 7,6         | 10,1                | 4,7                 | 5,1                 | 20,2                  |
|                     | 2001        | 8,8         | 9,2                 | 8,5                 | 6,7                 | 21,7                  |
|                     | <b>2006</b> | <b>8,7</b>  | <b>10,3</b>         | <b>7,8</b>          | <b>7,0</b>          | <b>10,9</b>           |

### 2.2.3. Pirinioaldea

Agoitz dugu eskualde honetan neurtutako herri bakarra. Agoizek duen ezagutza tipologia Iruñerriko udalerrietatik hurbilago dago Mendialdekoetatik baino. Biztanle aldetik, ordea, alderantziz.

10. taula

2006ko kale neurketak Agoitzen emandako emaitzak adin taldeka, 2001eko ezagutza datuaren aldean

| Udalerria     | Euskaraz<br>ongi % | Erabilera<br>% | Haurren<br>erabilera % | Gazteen erabilera<br>% | Helduen erabilera<br>% | Adinekoen<br>erabilera % |
|---------------|--------------------|----------------|------------------------|------------------------|------------------------|--------------------------|
| <b>Agoitz</b> | 15,2               | <b>2,8</b>     | 1,3                    | 8,7                    | 3,4                    | 0                        |

Agoitzen bildutako datuak hartuta atentzioa ematen duena gazteen erabilera altua da, baina datu hori oso lagin murriztetik atera da (23 gazte baino ez ziren neurtu). Berriozarren eta Zizur Nagusian aipatu dugun zuhurtzia bera aipatuko dugu hemen, horietan hutsala izan zelako, hemen altua delako, baina funtsean, ezin dugula joerak ondorioztatu kasuan kasuko datu soiletatik.

Irakurketa zabalagoa hartze aldera, ikus dezagun zer joera ikusten den 5.000 biztanletik beheitiko tipologiako herrietan. Nafarroan dauden 254 udalerrietatik 2 neurtu dira: Agoitz eta Doneztebe. Doneztebe Ipar-Mendebaleko eskualdean aztertu dugu.

11. taula

Kale neurketek 5.000 biztanletik beheitiko udalerrietan emandako emaitzak adin taldeka

| Udalerriak        | Neurketa    | Erabilera<br>% | Haurren<br>erabilera % | Gazteen erabilera<br>% | Helduen erabilera<br>% | Adinekoen<br>erabilera % |
|-------------------|-------------|----------------|------------------------|------------------------|------------------------|--------------------------|
| <b>&lt; 5.000</b> | 1993        | 11,7           | 18,3                   | 10,9                   | 9,3                    | 9,3                      |
|                   | 1997        | 11,8           | 16,4                   | 10,7                   | 10,8                   | 8,2                      |
|                   | 2001        | 10,7           | 14,3                   | 9,8                    | 9,9                    | 7,3                      |
|                   | <b>2006</b> | <b>10,6</b>    | <b>13,3</b>            | <b>12,8</b>            | <b>8,7</b>             | <b>8,8</b>               |

Gurutzatze hori eginda, ikus daiteke tamaina horretako udalerrietan joera orokorra aski egonkor dagoela. Haurren erabilerak beheiti egin du, bai eta helduena ere bai, baina gazteek ordea, euren erabilera handitu eta inoizko altuena eman dute: 10,9 [1993] \_ 10,7 [1997] \_ 9,8 [2001] \_ 12,8 [2006].

### 2.2.4. Estellerria

*Lizarra* da eskualde honetako erreferentzia udalerria. Lizarrak duen eza-gutzak nola biztanle tipologiak Iruñerriko udalerriein bat egiten dute, baina Lizarrak harreman gune sozio-geografiko berezia osatzen du (berriki errepide berriak Iruñerrira *hurbildu* badu ere). Erabilera eskema ere berezia du Iruñerriko udalerrien aldean

12. taula

2006ko kale neurketak Lizarran emandako emaitzak adin taldeka, 2001eko ezagutza datuaren aldean

| Udalerria      | Euskaraz<br>ongi % | Erabilera<br>% | Haurren<br>erabilera % | Gazteen erabilera<br>% | Helduen erabilera<br>% | Adinekoen<br>erabilera % |
|----------------|--------------------|----------------|------------------------|------------------------|------------------------|--------------------------|
| <b>Lizarra</b> | 10,8               | <b>5,1</b>     | 7,6                    | 3,5                    | 3,4                    | 5,6                      |

Haren ezagutza tasa beretsua duten Barañain, Burlata, Zizur Nagusia eta Berriozar udalerrien aldean, Lizarrak erabilera orokor hobea eman du eta adin taldeka nabarmen-nabarmena da haurren artean izan duen erabilera altua: % 7,6. Kasu honetan ez dugu lagin murriztik (458 haur neurtu baitira) baina datua joera baten irakurketa zabalean sartuko dugu. Izan ere, aurreko kale neurketan Lizarran eskuratu ziren datuetan haurren erabilera nabarmen jaitsi izanak atentzioa eman zigun<sup>7</sup>.

### 2.2.5. Nafarroa Erdialdeko Ekialdea

Tafalla dugu eskualde honetan neurtutako udalerria. Tafalla Iruñerriko biztanle tipologiaren barnean dago baina ezagutza anitzez ere apalagoa du. Gainera, Iruñerrikoak ez bezala, udalerri hau legez eremu ez euskalduna delakoan dago.

13. taula

2006ko kale neurketak Tafallan emandako emaitzak adin taldeka, 2001eko ezagutza datuaren aldean

| Udalerria      | Euskaraz<br>ongi % | Erabilera<br>% | Haurren<br>erabilera % | Gazteen erabilera<br>% | Helduen erabilera<br>% | Adinekoen<br>erabilera % |
|----------------|--------------------|----------------|------------------------|------------------------|------------------------|--------------------------|
| <b>Tafalla</b> | 5,7                | <b>1,7</b>     | 1,6                    | 1,7                    | 2,4                    | 0                        |

Tipologia soziolinguistikoaatik Tafalla Tuteraren aldean para genezake baina ikusiko dugu nola azken honek 2006ko neurketan izan duen emaitzak bereziki azaltzeko bide ematen duen.

## 2.2.6. Tuteralde

Tuteran (25.000 – 50.000 bitarteko biztanleak dituen udalerri bakarrean) erabilera 3koa da, aurreko neurketatik +1,4 goiti egin duela ([2001] 1,6 \_ [2006] 3). Igoera hurrei eta gazteei esker gertatu da. Ikus dezagun:

14. taula

Kale neurketek Tuteran emandako emaitzak adin taldeka

| Udalerria     | Neurketa    | Erabilera % | Haurren erabilera % | Gazteen erabilera % | Helduen erabilera % | Adinekoen erabilera % |
|---------------|-------------|-------------|---------------------|---------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>Tutera</b> | 1993        | 0,7         | 1,5                 | 0,0                 | 0,9                 | 0,0                   |
|               | 1997        | 1,3         | 2,2                 | 1,1                 | 1,4                 | 0,0                   |
|               | 2001        | 1,6         | 0,9                 | 1,7                 | 2,0                 | 0,0                   |
|               | <b>2006</b> | <b>3</b>    | <b>5,4</b>          | <b>5,9</b>          | <b>1,9</b>          | <b>0,2</b>            |

Ezagutzari erreparatzen badiogu, Nafarroan neurtu diren daturik hoberenak dira. Tuteran *euskaraz ongi* dakitenen portzentajeak eten gabe goiti egin du 1986ko zentsutik: 0,7 [1986] \_ 0,8 [1991] \_ 1,1 [1996] \_ 1,2 [2001]. 2. taulan agertu bezala, 2001eko erroldako datuen arabera, 15 urte-tik beheitikoen % 2,5ek euskaraz ongi zekien. Beraz, datu deigarriak dira<sup>8</sup> haurren erabilerak izan duen +4,5 puntuko gorakada ([2001] 0,9 \_ [2006] 5,4) eta gazteenak izan duena: +4,2 ([2001] 1,7 \_ [2006] 5,9).

Nafarroako kasu bakarra da erabilera datua ezagutzaren anitzez ere gainetik duena<sup>9</sup>. Areago ere, Tuterak baino ezagutza datu hobeak dituzten bertze udalerri batzuetan (Tafallan, Iruñean, Atarrabian, Zizur Nagusian eta Agoitzen) erabilera datu apalagoak neurtu dira. Gainera, azken bortz urteotan izan diren aldaketa demografikoengatik Tuterako biztanleen % 12,1 Europako Batasunetik kanpoko atzerritarrek dira<sup>10</sup> eta jakinda Tutera lege aldetik *eremu ez euskaldun* delakoan dagoela eta euskara hezkuntza sistema publikotik kanpo dagoela, pentsa dezakegu egungo datu demolinguistikoak 2. taulan jaso diren 2001eko erroldakoak baina apalagoak direla euskararen ezagutzari dagokiola. Beraz, hemen dugu atentzioa ematen digun datu *onegia*.

## 2.3. Generoa

Gizonezkoen eta emakumezkoen erabileren aldeaz, 2006ko kale neurketako Iruñeko datuek -aurreko kale neurketan gertatutakoaren kontra- euskaraz egin dutenen artean gehienak emakumezkoak direla erakutsi dute. Eta hori adin talde guztietan gertatu da.

## 15. taula

2006ko kale neurketak Iruñean emandako emaitzak generoko eta adin taldeka

| Udalerria | Neurketa    | Emakumezkoak      |                   |                   |                    | Gizonezkoak       |                   |                   |                    |
|-----------|-------------|-------------------|-------------------|-------------------|--------------------|-------------------|-------------------|-------------------|--------------------|
|           |             | Haurren erabil. % | Gazteen erabil. % | Helduen erabil. % | Adineko. erabil. % | Haurren erabil. % | Gazteen erabil. % | Helduen erabil. % | Adineko. erabil. % |
| Iruñea    | 2001        | 5,4               | 2,1               | 1,8               | 0,4                | 7,4               | 2,4               | 2,7               | 0,6                |
|           | <b>2006</b> | <b>4,5</b>        | <b>1,8</b>        | <b>2,7</b>        | <b>2,0</b>         | <b>4,1</b>        | <b>1,7</b>        | <b>2,5</b>        | <b>1,8</b>         |

Beraz, datu horiek ikusita erratea legoke Iruñean euskara erabiltzen dutenak nagusiki emakumezkoak direla. Erabileraren feminizazio hori deigarriagoa zaigu ezagutza datu berrien aldean paratuta, Iruñerrian euskaraz ongi dakiten gizonezkoak emakumezkoak baino % 5,7 gehiago baitira<sup>11</sup>.

Euskararen erabiltzaile gehienak emakumezkoak izate honetan Iruñeak Hegoaldeko hiriburuen joera nagusiarekin bat egiten du.

## 2.4. Haurrak tartean direla

Haurrak komunikazio egoeretan egoteak ala ez euskararen erabileran duen eragina neurtuta, Hegoaldeko hiriburuetan joera garbia da euskara gehiago erabiltzea haurrei zuzentzen zaizkion mintza jardunetan. Iruñean % 6,9 da erabilera tasa hori, aurreko neurketatik jaitsi bada ere (-1,7: [2001] 8,6 \_ [2006] 6,9).

Dena dela, badira hiru datu Iruñea Hegoaldeko bertze hiriburuen joera nagusitik bereizten dutenak. Lehenik, Iruñean haurrik egoteak ez dakar euskara gehiago erabiltzea: haurrak tartean daudela % 4,4 da euskararen erabilera ([2001] 6,2 \_ [2006] 4,4) eta haurrik ez dagoelarik % 5,3 ([2001] 1,3 \_ [2006] 5,3). Bigarrenik, haurren arteko erabilera nabarmen jaitsi da: -5,1 ([2001] 5,9 \_ [2006] 0,8). Hirugarrenik, haurrak tartean direla nagusien arteko erabilera jaitsi da: -1,3 ([2001] 3,4 \_ [2006] 2,1).

Iruñean ikusi den antzekoa ikusi ahal izan da Iruñerriko bertze udalerrri batzuetan: Barañainen eta Berriozarren. Bi horietan haurrik egoteak ez du erabilera handiagoa ekarri. Baina azken honetan atentzioa ematen du haur-nagusiaren artekoetan euskararen erabilera altua: % 10,1.

Zizur Nagusian, Agoitzen, Lizarran eta Tuteran garbi ikusten da haurren eragina euskararen erabileran. Azken hauetako datuak bereziki deigarriak dira: haurrak tartean daudela Lizarran % 6 egiten da euskaraz eta Tuteran % 3,7; haur-nagusiaren arteko erabilera Lizarran % 7,3 eta Tuteran % 5,8; eta haurren arteko erabilera Lizarran % 7,5 eta Tuteran % 4,6.

## 2.5. Bakarriketak

Azken kale neurketa honetan neurtutako bakarriketak berretu dira Nafarroan ([2001] 324 \_ [2006] 924). Horietan euskaraz atzemandakoak ere biderkatu dira, ehunekotan emanda: [2001] 3,4 \_ [2006] 9,2.

Atentzio ematen du solaskidea bertan ez dagoela buruz buru egiten diren elkarriketetan baino euskara gehiago erabiltzea: Nafarroan % 6,6 da euskararen erabilera orokorra eta % 9,2 solaskidea bertan ez dagoela euskaraz egiten dena. Hori bera Araban eta Iparraldean ere nabarmena da.

Azalpena euskaldun ehuneko txikia izatean dagoke. Izan ere, egun udalerri batean euskaldun gutxi egotea ez da traba herri horretako karriketan euskaldun bat nonahiko solaskide euskaldunarekin solasean ariatzeko. Teknogiaren ugaltzeak hizkuntza komunitate fisikoaren kontzeptua gailendu beharrean paratzen gaitu.

## 2.6. Bertze hizkuntzen erabilera

2006ko neurketa honetan lehen aldiz neurtu ahal izan dugu gaztelania (Hegoaldean) ez den bertze erdaren erabilera. Lehenbiziko aldiz neurtu ahal izan dugu gure herrietako *entzutezko paisaian* dagoen aniztasuna, azken 5 urteotan bereziki gure artean nabarmen ugaltu dena.

Nafarroari dagokionez, aipatu behar da Zizur Nagusia ez bertze 12 herrietako neurketetan bertze hizkuntzen erabilera, gutxi-asko, antze-man dela.

Iruñerriko datu orokorretan udalerri guztietan euskararen aldekoa da alderaketa: Atarrabian +2,8, Barañainen +2,7, Zizur Nagusian +2,2, Burlatan +1,7, Iruñean +0,5 eta Berriozarren 0,4. Baina datu deigarri bat dago hiriburuan: Iruñean helduen eta adinekoen adin taldeetan bertze hizkuntzen erabilera euskararena baino altuagoa da (helduen artean euskaraz % 2,6 eta bertze hizkuntzetan % 3 neurtu da eta adinekoen artean euskaraz % 1,9 eta bertze erdaretan % 2,1). Hori ez da Hegoaldeko bertze ezein hiriburutan gertatu, nahiz eta Gasteizen emaitzak ia berberak izan (helduen artean euskaraz % 3,7 eta bertze hizkuntzetan % 3,6 neurtu da eta adinekoen artean euskaraz bertze erdaretan bezala: % 0,6).

Tuteran ere Iruñerrian bezainbertzeko aldea neurtu da euskararen alde: +0,4 (euskaraz % 3 eta bertze hizkuntzetan % 2,6).

Mendialdeko udalerrietan berriz, euskararen eta bertze hizkuntzen arteko aldea oso handia da, euskara nagusi: Altsasun +14, Baztanen +39,5 eta Donezteben +47.

Aipagarriena Tafallaren kasua dugu, Tafallan euskararen erabilera % 1,7 izan den bitartean, bertze hizkuntzena % 8,7 izan da. Beraz euskarak baina +7 puntu gehiago aditu dira Tafallan kanpoko hizkuntzak (jakin ez dakigu zein).

---

*Datu horiek ikusita  
erratea legoke Iruñean  
euskara erabiltzen  
dutenak nagusiki  
emakumezkoak direla.  
Erabileraren feminizazio  
hori deigarriagoa zaigu  
ezagutza datu berrien  
aldean paratuta,  
Iruñerrian euskaraz ongi  
dakiten gizonezkoak  
emakumezkoak baino %  
5,7 gehiago baitira.*

*Haurrak komunikazio egoeretan egoteak ala ez euskararen erabileraren duen eragina neurtuta, Hegoaldeko hiriburuetan joera garbia da euskara gehiago erabiltzea haurrei zuzentzen zaizkion mintza jardunetan. Iruñean % 6,9 da erabilera tasa hori, aurreko neurketatik jaitsi bada ere.*

### **3. NAFARROAKO KALE NEURKETEN BILAKAERARI ZENTZUA EMAN NAHIAN: ITZAL-ARGIAK**

Kale neurketek Nafarroa garaian eman duten datu andana aztertzean emaitza kuantitatibo horien barru etiologikoa atzementa izan dut xede, hau da, portzentaje eta taulak aztertu, interpretatu eta Nafarroan euskararen erabilera sozialaren garapenaren azalpen koherentea eratzea.

Nafarroan 2006ko kale neurketak euskararen erabileraren aurrerabiderik eza berretsi du. Azken neurketak duela 5 urte neurtutako bera eman du: % 6,6. Areago ere, 1989ko kale neurketatik hamazazpi urteotan, euskararen erabilera tasa orokorra ia ez da mugitu (ikus 3. taula). Halere, aurrerabiderik ez horretan, guk egonkortasuna baino iraupena ikusi dugu, hots: Nafarroako euskal hizkuntza komunitateak bere erabilera tasari eutsi egin diola.

Hiru gertakari aipatu ditugu aurrerabiderik eza iduri lezakeen horren gainean balorazio baikorra egiteko:

1. 2001etik 2006 bitartean Nafarroako populazioa kanpotik etorritako jendeaz % 8,3 berretu da. Euskal Herriko testuinguruan Nafarroa da atzerritar gehien bildu duen herrialdea (44.605). Azken urteotako datuei erreparatuz, batez bertze 8.000 lagun gehiagokoa da urteroko Nafarroako migrazio saldo positiboa. Honezkero nafarren % 7,5 Europako Batasunaren kanpotik etorritakoa da<sup>12</sup>. 2006an egin behar zen errolda ez da egin eta 2006ko erabilera datuak 2001eko ezagutza datuen aldean paratu behar izan ditugu. Jakin badakigu oraingo eza-gutza datuak 2001ekoak baino apalagoak direla, halere, horrek ez du euskararen erabilera soziala beheiti ekarrarazi.

2. 2001etik 2006 bitartean Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika murriztaileak segitu du: euskararen erabilera instituzionala bazterrekoa egiten du eta erabilera soziala ez du sustatzen; helduek euskara ikastea eta haurrak euskarazko eredueta matrikulatzea ez du instituzionalki bultzatzen, alderantziz ere, egun nafarren erdiek segitzen dute euren haurrak euskarazko hezkuntza publikoan matrikulatu ezin izaten. Halere, nafarren artean euskararekiko jarrera ez da makurtu<sup>13</sup> eta D ereduko matrikulek ez dute beheiti egin.

3. 2001etik 2006 bitartean, bertze adin taldeetan gertatu diren galerak galera, Nafarroako igoerarik handiena gazteen artean gertatu baita (+0,8), gazteek euskararen inoizko erabilerarik altuena eman dutela (% 6,9). Gazteen igoera horrek Ipar-Mendebaldean (Baztanen eta Donezteben), Pirinioaldean (Agoitzen), Estellerrian (Lizarran) eta Tuteralean (Tuteran) gertatu dira nabarmenen.

Beraz, aipatu testuinguru horretan aurrerabiderik ezak Nafarroako euskal hizkuntza komunitateak, bere txikian, erabilera tasari eutsi egin

diola errateko bide ematen du. Hau da, espero zitekeenaren kontra, ingurumari soziopolitikoan ez alde jokatu duten aldagaiek jokatu dutela, euskararen erabilera egonkor mantendu duela. *Aurrerabiderik ez* hori euskara harreman-bidea duen komunitate baten iraupen gisa baliozta daiteke eta hori da etengabea, iraunkorki kale neurketek Nafarroan adierazten dutena. Hizkuntza komunitate txikia baina hizkuntzari atxikimendu handia diona da gurea. Izateko nahi hori, izaten segitzeko nahi hori da gakoa eta gako horretan baizik ezin da interpretatu zenbakiek erakusten duten jokamolde zenbait, haurrekin egiten den erabilera soziala, Mendialdeko belau-naldi berrietan antzematen den erabilera altua eta agian, deigarriena: euskararen ezagutza apal-apala duen Tuteran, adibidez, euskal komunitate txikia euskaraz aritzea ezagutza tasagatik espero zitekeenaren gainetik ere.

Beraz, Nafarroan gizarte zati bat dugu euskarari atxikimendu handia diona eta, koiunturak koiuntura, azken urteotan erabilera sozialaren mailari eutsi egin diona. Baina ezin dugu espero kinka horretan egoteak luzera, ala luze gabe ere, bere eragina izanen ez duenik. Izan baditugu elementuak kezkatzeko:

- Iruñean haur eta gazteen adin taldeetan ez da euskararen erabileraren garapen positiborik antzeman. Daturik makurrena gazteen artean dago. Gazteen erabileraren gainbehera Iruñean nola Iruñerrian (10.000 – 25.000 biztanle bitarteko udalerrietan) antzeman da, eta bietan nabarmen. Horrek Iruñerriko haur eta gazte euskaldunen erabilera baldintzen eta aukeren gainean gogoeta egitera bultzatu beharko gintuzke bai eta, komunitate gisa, belaunaldi gazte euskaldunek dituzten erabilera beharrei erantzuteko bideak modu estrategikoz jorratzera ere.

Iruñerriko gazte euskaldun gehienek euskarazko irakaskuntza bidez euskaldundu dira. Euskarazko irakaskuntza funtsezkoa da baina ez nahikoa. Eskolak eskolaz kanpoko eta eskola aldiaren ondoko loturak eta indargarriak behar-beharrezkoak ditu, haurrak eskolan jasotako trebetasun eta ezagutza horiek indartuz eta barneratuz joanen badira. Horretan dago erabileraren gakoa, ez euskaraz ikasten duten haur eta gazte anitz izatean, gazte horiek euren bizitza sozial, emozional nola intelektualean euskaraz ere ongi, eroso eta egoki komunikatzeko gaitasuna izatean baizik. Eta hori eskolak soilik ez du ematen. Horretarako euskaraz jakitea eskas geratzen da, gazteek euskaraz eroso, seguru, ongi ikusi behar dute euren burua eta hori eskolako hizkuntza esperientzia gaintitzen duen esperientzia komunikatibo zabalago batean baino ez dute eskuratuko. Iruñerriko haurren artean euskararen erabilerak izan dituen tasa hutsalak dira hurrek erabilera ez formal horretan dituzten gabezien salagarri.

Aisialdia euskaraz euskaldunon behar soziala da eta haur euskaldunen behar pedagogikoa ere. Erabilera aldetik bada oro har

---

***Iruñean helduen eta adinekoen adin taldeetan bertze hizkuntzen erabilera euskararena baina altuagoa da (helduen artean euskaraz % 2,6 eta bertze hizkuntzetan % 3 neurtu da eta adinekoen artean euskaraz % 1,9 eta bertze erdaretan % 2,1).***

***Kale neurketek Nafarroa  
garaian eman duten datu  
andana aztertzean  
emaitza kuantitatibo  
horien barru etiologikoa  
atzematea izan dut xede,  
hau da, portzentaje eta  
taulak aztertu,  
interpretatu eta  
Nafarroan euskararen  
erabilera sozialaren  
garapenaren azalpen  
koherentea eratzea.***

betetzen den arau bat: ez dela emanen jaso ez dena. Hau da, gurera ekarrita: haur eta gazte euskaldunek ez dutela euskaraz adieraziko euskaraz eman ez zaiena, euskaraz bizi izan ez dutena (izan agurra, ipuina, txistea edo haserre). Beraz, haur eta gazteen eskolako hizkuntza esperientzia osatzea beharrezkoa da eta Nafarroan babes instituzionala laburrean handituko ez dela jakinda, honako hau izan beharko genuke garbi: egun gurasoek, familiak, gertuko komunitateak, eskolak ere, denok dugula erantzukizun handia haurren eskolako euskara hizkuntzaren sentipen-emoziozko esperientziez lagundu, bete, hornitu eta joritzeko.

- Arestian aipatutako hiztun berrien kalitatea ez ezik, kantitatea ere dugu kezka. Irakaskuntza da Nafarroako lurralderik gehienean euskal hiztun berriak sortzeko bide nagusia eta egun bide hori Nafarroako lurralderik gehieneko sistema publikoan itxita dago hemengoen nola berriki etorritakoen seme-alabendako. Hori berebiziko eragozpena da eta ez du iduri hurrengo urteotan konponbide politikoa emanen zaionik.

Nafarroan irakaskuntzaren bidez euskara pixka bat ezagutu edo euskalduntzeko bideak hain murriztuak izatea larriagotzen da jakinda azken urteotan Nafarroara etorritakoen eraginez populazioa % 8,3 hazi dela. Egun kanpotik etorritakoei nola gure artean sortu diren haien seme-alabei euskararen bidez bertakotzeko aukera eman behar zaie eta horretarako bide eraginkorrena irakaskuntza dugu, helduena (euskalduntzea) nola haurrena (Hezkuntza sistema).

Hezkuntzan, kanpotik etorritako jendearen seme-alabak gure artean bertakotzeko biderik onen gisa, ahalegin estrategikoak egin behar ditugu, horretan ere Nafarroa Hegoaldeko bertze herrialdeen aldean bereiz ari baita jokatzeko: Nafarroan, 2003-2004 ikasturtean, ikasle etorkin ia guztiak (% 99,8) G ereduaren zeuden matrikulatuta. Hau da, euskara ikasgai gisa ere lantzen ez duen ereduaren. Araban, 2004-2005 ikasturtean, % 75 A ereduaren zegoen matrikulatua eta % 4,7 bertzerik ez D ereduaren. Bizkaian % 54,9 A ereduaren eta % 22,5 D ereduaren. Gipuzkoan B ereduaren kokatzen dira etorkin gehienak (% 45), eta ondoren D ereduaren etorkinen % 37,3. A ereduaren matrikulatutakoak % 17,7 dira<sup>14</sup>.

Azken urteotan hizkuntzen behararen pertzepzioa aldatu da. Elebitasuna eskas geratu da eta bertze hezkuntza eredu eleanitzetara jo beharra ikusten dugu. Nafarroako Administrazioak hori probestu du euskararen kaltetan. Hori horrela, babes instituzionalik gabe, Nafarroako jendea, hemen sortuak nola hona etorriak, euskarazko ikastereduetara erakartzeko elebitasunaren diskurtsoa gainditu eta geure *produktua* euskara soilik izatetik eleaniztasuna eta kalitatea izatera igaro behar dugu. Honezkero euskarazko irakaskuntzan diharduten hainbertze ikastetxe erreferentzia da horretan baina hori denendako izanen da nahitaezkoa Nafarroako

Hezkuntza Kontseilari berriak D eredua ez diren bertze ereduak (A eredu, *British*) bultzatzeko berriki agertu duen asmoa ezagututa.

#### **4. ETORKIZUNERA BEGIRA**

Gauzak horrela, noiz artio eutsi ahal izanen diogu egungo erabilerari? Espazio komunikatiboa etengabeko tentsioan dago. Hizkuntza baten erabilera soziala tentsio horretan bizi da gizartearen gorabeheren menpe. Hori jakinda, geure buruari galdegitea diogu aldeko koiunturarik gabe iraun eta zenbaitetan aitzintxo ere egin duen hizkuntza komunitate horren erabilerak noiz artio eutsi ahal izanen dion bere egoerari. Nafarroan euskal hizkuntza komunitateak berebiziko premiak ditu eta hurrengo urteotan horiek alde edo moldez betetzera jo behar dugu estrategikoki erabilerak gibelera eginen ez duela bermatu nahi badugu. Nire idurikoz, aurreko atalean azaldutakoagatik, honako hauek dira erabilerarako gune estrategikoak:

- Haur eta gazteen eskolaz kanpoko aisialdi arloan erabilerarako aukerak handitzea, euskararen erabilera soziala apala den udalerrietan batez ere.
- Euskarazko Hezkuntza ereduaren aukerara ahal den herritar gehien erakartzea, kalitatea eta eleaniztasuna seinale duten proiektuen bidez.
- Helduen euskalduntzeaz gogoeta sakon eta zabala egitea Nafarroan ditugun premiez.
- Euskarari presentzia publiko handiagoa ematea, idatzizkoa nola ahozkoa, erabilera aztura eta jarreraren aldatzea ekarriko lukeen dinamika berri baten aldera.

#### **5. HURRENGO IKERKETETARAKO KONTUAK ETA PROPOSAMEN METODOLOGIKOA**

Kale neurketen datu kuantitatiboek atentzioa merezi duten gertakariak detektatzen laguntzen dute. Kale neurketa honek eman duen zenbaki-ikuspegia arloz arloko ikerketa kualitatiboaren bidez osatzea interesgarria izanen litzateke. Honako hauek dira, nire idurikoz, sakontze ikerketa kualitatiboak egiteko moduko gertakariak:

- Tuteran haur eta gazteen erabilera altua. Aztertu beharko litzateke bertako euskal hizkuntza komunitatearen bizi eta harreman estrategiak nolakoak diren euskara ezagutza hain datu apalak hain erabilera handia emateko.
- Iruñea, Hegoaldeko bertze hiriburuetak datuen aldean bereiz agertu da zenbaitetan. Adibidez: haurrik egoteak euskara gehiago

---

*Beraz, Nafarroan gizarte  
zati bat dugu euskarari  
atxikimendu handia  
diona eta, koiunturak  
koiuntura, azken urteotan  
erabilera sozialaren  
mailari eutsi egin diona.  
Baina ezin dugu espero  
kinka horretan egoteak  
luzera, ala luze gabe ere,  
bere eragina izanen ez  
duenik.*

*Gauzak horrela, noiz  
artio eutsi ahal izanen  
diogu egungo erabilerari?  
Espazio komunikatiboa  
etengabeko tentsioan  
dago. Hizkuntza baten  
erabilera soziala tentsio  
horretan bizi da  
gizartearen gorabeheren  
menpe. Hori jakinda,  
geure buruari galdegitea  
diogu aldeko koiunturarik  
gabe iraun eta  
zenbaitetan aitzintxo ere  
egin duen hizkuntza  
komunitate horren  
erabilerak noiz artio eutsi  
ahal izanen dion bere  
egoerari.*

erabiltzea ez ekartzea. Hemen ikerketa kualitatibo batek ahul guneak hobeki detektatzen lagunduko liguke.

- Iruñerriko zenbait udalerritan haurren arteko erabilera oso apala da, bertze batzuetan berriz, ona. Haurrek dituzten erabilera aukera ezberdinak, eskaintzak, testuinguruak aztertu beharko lirateke ikerketa konparatiboen bidez: zer elementu objektibo dago udalerritan batzuetan eta zer bertzeetan, haurren arteko erabilerak hain joera ezberdinak izateko.

- Erabileraren feminizazioa aipatu dugu. Iruñerrian deigarriago egiten zaigu datu hori gizonezkoen ezagutza handiagoaren aldean. Bertzalde, emakumeen presentzia, kale neurketak metodologikoki egiten diren moduan eginda, aztertu beharreko elementua litzateke.

Bukatzeko, proposamentxo metodologikoa: gure artean teknologia berriei esker gero eta normalagoa dena, guregandik fisikoki urrun dagoen solaskide batekin aritzea *bakarrizketak* deitu beharrean *solaskidea bertan ez dagoela* egiten den erabilera deitzea. Izan ere, *bakarrizketa* nork bere buruarekin egiten duena edo inorekin ez egiten dena da eta guk neurtzen ditugun horiek ez dira halakoak izaten.■

## OHARRAK

1. Iturria: Biztanleen Udal Errolda 2006ko urtarilaren 1ean. INE. Sarean: <<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/4E798CCE-0847-4D78-BB90-FF2C8756472A/81891/POBMUN08.xls>>
2. Iturria: Gros i Lladós, Miquel (2007). *Recuperación del Euskera en Navarra*. Bilbo: Euskaltzaindia.
3. Iturriak:  
Gros i Lladós, Miquel (2007). *Op. cit.*  
Nafarroako Gobernua (1999). *Nafarroako Populazioaren Estatistika*. 1996. *Populazioaren banaketa euskararen ezagutzari buruz / Estadística de Población Navarra*. 1996. *Distribución de la población según el conocimiento del euskera*. Iruña – Pamplona: Nafarroako Gobernua. Nafarroako Estatistika Erakundea. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.
4. Ikertalde (2006). *Estudio sociolingüístico en Pamplona y su Comarca*. 2006. Ikerlan argitaratu gabea. 10. or.
5. Udalbiltza (2006). *Euskal Herria datuen talaia*. 2006. Euskal Herria: Txalaparta, 131. or.
6. Baztan udalerriko neurketa Elizondon egin da. Baztanen hamabortz herri daude eta Elizondo handiena da, biztanle gehien duena eta zerbitzu gehienak biltzen dituena. Euskaraz ongi egiten dutenen portzentajerik apalena duena ere bai, aipatu % 80,5 baina hamar bat puntu gutxiago.
7. Arregi, Mikel. (2002). Euskararen erabilera Nafarroan. Kale neurketaren emaitzen azterketa. *Bat*, 43, 78. or.
8. Bi adin talde horietan neurtutako laginak ez dira txikiak izan: 921 haur eta 525 gazte neurtu dira.
9. Halako iruzkina Mikel Arregi Perezek ere egin zuen 2001eko kale neurketak Tuteran emandako datua aztertzean: Arregi, M. (2002). *Op. cit.*, 78. or.
10. Udalbiltza (2006). *Euskal Herria datuen talaia*. 2006. Euskal Herria: Txalaparta, 131. or.
11. Ikertalde (2006). *Op. cit.*, 9. or.
12. Udalbiltza (2006). *Op. cit.*, 124. eta 131. or.
13. Horren inguruan ikusi, adibidez: Ikertalde (2006). *Op. cit.*
14. Udalbiltza (2006). *Op. cit.*, 124. eta 133. or.